

<p>BILBOKO UDALAREN ETA BIZKAIKO IKASLEEN GURASO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA 2016</p>	<p>CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y LA FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES DE PADRES Y MADRES DE ALUMNOS Y ALUMNAS DE BIZKAIA 2016</p>
--	--

**BILBOKO UDALAREN
ETA
BIZKAIKO IKASLEEN GURASO
ELKARTEAREN ARTEKO
HITZARMENA**

Bilbon, 2016ko maiatzaren 27an

BILDUTAKOAK

Alde batetik, KOLDO NARBAIZA OLASKOAGA jauna, Bilboko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko Zinegotzi ordezkaria (NAN: 30.558.233L).

Beste aldetik, ANA ISABEL PUENTE MARTINEZ, 26.197.352-F N.A.N. duena, Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkartearen lehendakari moduan. Elkartearen helbidea: Erronda, 27, Bilbao. (IFK: V 48157242).

Alde biek ahalmen osoa onartu diote elkarri hitzarmenak sinatzeko eta betebeharrak hartzeko, eta horretarako hauxe

ADIERAZI DUTE

Bilboko Udalaren arduretako bat udalerrian euskararen erabilera sustatzea da. Eginkizun hori betetzeko gaur egun dugun baliabiderik behinena Euskararen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana da (ESEP). Plan horretan azpimarratuta dagoenez, beharrezkoa da eguneroko betebeharrak euskaraz egiteko aukerak eskaintzea ohiko komunikazio-hizkuntza euskara dutenei edota eduki nahi dutenei.

**CONVENIO ENTRE
EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO
Y
LA FEDERACIÓN DE PADRES Y
MADRES DE ALUMNOS DE
BIZKAIA**

En Bilbao, a 27 de mayo de 2016.

REUNIDOS

De una parte, D. KOLDO NARBAIZA OLASKOAGA, Concejal Delegado del Área de Euskera y Educación del Ayuntamiento de Bilbao con DNI 30.558.233L.

Por la otra parte, ANA ISABEL PUENTE MARTINEZ, con D.N.I. 26.197.352-F, presidenta de la Federación de Asociaciones de padres y madres de alumnos y alumnas de Bizkaia, que tiene su domicilio en Ronda, 27, de Bilbao (CIF V 48157242).

Ambas partes con plena capacidad para obligarse con el carácter con el que intervienen

EXPONEN

Una de las responsabilidades del Ayuntamiento de Bilbao es la de promover el uso del euskera en el municipio. El principal instrumento para llevar a cabo tal labor en la actualidad es el denominado Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP), en el que se subraya la necesidad de ofrecer posibilidades de realizar las múltiples funciones cotidianas en euskera a quienes tienen, o desean tener, la lengua vasca como instrumento vehicular habitual.

Nabaria izan da azken urteotan hiriko ikastetxeetan euskaraz emandako irakaskuntzak hartu duen abiada bizia. Ikastoletan hasitako lanari eskola eta bestelako ikastetxeetan bultzatu eta gauzatu diren D zein B eredu deitutakoen ikastalde mordoak gehitu zaio.

Ikastetxeetan gertatu den euskarazko ereduaren zabalkundearen bultzagile nagusietakoak ikasleen guraso elkarteak izan dira, euskarazko irakaskuntzaren bidez seme-alabak elebidun izan daitezzen gehiengo zabal batek duen borondatearen adierazle, horretarako hamaika proposamen eta ekimen burutu dituztela.

Jakina da, hala ere, Bilbok ez duela eskaintzen gaur egun oso baldintza egokirik eskolan ikasitako euskara guzti hori benetako mintzabide bihurtzeko.

Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkarteak, ikastetxeetako guraso elkarten koordinazioan eta suspertze lanetan daraman bidean, hainbat programa eta ekimen proposatzen ditu Bilborako euskaldunon hizkuntza eta kultura hezkuntza komunitatera hurbiltzeko ahaleginean.

Azalduakoa ikusita, hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute, klausula hauekin:

Es evidente y notoria la progresión ascendente que la enseñanza en euskera ha experimentado durante los últimos años en la Villa. Al trabajo realizado inicialmente en las ikastolas hay que añadir la incorporación a numerosos centros públicos y privados de los denominados modelos lingüísticos D y B de una manera generalizada.

Uno de los principales soportes del impulso del euskera en el ámbito de la enseñanza han sido las asociaciones de padres y madres de los centros educativos, transmisoras del deseo mayoritario de que el euskera sea lengua vehicular educativa, proponiendo y llevando a cabo multitud de iniciativas en este sentido

Sabido es, sin embargo, que el Bilbao actual no ofrece unas condiciones adecuadas para que esa lengua que muchos escolares conocen en las aulas se convierta en vehículo natural de su comunicación diaria.

Por ello, la Federación de Asociaciones de padres y madres de alumnos de Bizkaia, en su labor de coordinación y soporte de las asociaciones de cada centro educativo, propone para Bilbao una serie de programas e iniciativas encaminadas a acercar la lengua y cultura vasca a la comunidad educativa.

Que a la vista de todo lo expuesto acuerdan formalizar el presente convenio conforme a las siguientes:

KLAUSULAK

BAT.- Diru-laguntzaren zertarakoa

Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkarteari emango zaion diru-laguntza euskararen erabilera Bilboko ikastetxeetako umeen artean bultzatzeko da, udalaren aurrekontuko aurreikuspenarekin bat etorrita.

Bizkaiko Ikasleen Guraso Elkartek 1. eranskinen azaldutako programa gauzatuko du, 2. eranskinen zehaztutako aurrekontuarekin. Hitzarmen honen barrukoak dira eranskin bi-biak.

BI.- Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntza **6.950 eurokoa** da, Euskara eta Hezkuntza Sailaren 2016ko aurrekontuko 42000 33510 4819900 partidaren kargura doana.

HIRU.- Bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin

Hitzarmen honetan finkatutako diru-laguntza bateragarria izango da nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edota baliabideekin. Kasu horretan, Euskara eta Hezkuntza Sailari jakinarazi beharko zaio. Aportazio guztien kopurua ezingo da izan diruz lagundutako jarduerak duen kostua baino handiagoa. Handiagoa balitz, itzuli egin beharko litzateke kostu horretatik gorakoa.

CLAÚSULAS

PRIMERA.- Objeto de la Subvención

La subvención que se concede a la Federación de Padres y Madres de Alumnos de Bizkaia tiene como objeto el impulso del uso del euskera entre niños/as de centros escolares de Bilbao, de acuerdo con la previsión del presupuesto municipal.

La Entidad Federación de Padres y Madres de Alumnos de Bizkaia desarrollará el Programa que se concreta en el Anexo 1 y según el Presupuesto determinado en el Anexo 2. Ambos Anexos forman parte del presente Convenio.

SEGUNDA.- Cuantía de la Subvención

La cuantía de la subvención es de **6.950 euros** que se imputa con cargo a la partida 42000 33510 4819900 del Presupuesto del Área de Euskera y Educación del año 2016.

TERCERA.- Compatibilidad con otras subvenciones

La subvención concedida al amparo del presente convenio, será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. En cuyo caso, deberán comunicarlo al Área de Euskera y Educación. El conjunto de aportaciones no podrá superar el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente.

LAU.- Diruz lagundutako jardueraren azpi-kontratazioa

Diruz lagundutako jardueraren % 10 baino ezingo du Bizkaiko Ikasleen Guraso elkarteak.

Diruz lagundutako jarduerok osorik edo zati batean gauzatzeko, ezingo da inolaz ere itunik egin Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako debekuetako baten barruan dauden pertsonekin edo erakundeekin, diru-laguntzaren jasotzailearekin lotura duten pertsonekin edo erakundeekin (Arautegiaren 68.2 artikuluan dago zehaztuta zeintzuk diren loturak) eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7 artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.

BOST.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren zer-nolakoarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenaren indarraldian egiten direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuen eskuratze-kostua ezingo da izan inola ere merkatu-balioa baino handiagoa.

Diruz lagundu daitezkeen gastua Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuan kontratu txikirako ezarritako zenbatekoa (18.000 euro, BEZ kanpo, ondasunen eta ekipoen, zerbitzuen eta abarren hornidurarako) baino handiagoa denean, kontratatu aurretik, onuradunak zenbait hornitzailearen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan

CUARTA.- Subcontratación de la actividad subvencionada

La Entidad Federación de Padres y Madres de Alumnos de Bizkaia únicamente podrá subcontratar un 10% de la actividad subvencionada.

En ningún caso, podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art.13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el beneficiario (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento), ni con las demás personas previstas en el art. 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

QUINTA.- Gastos subvencionables

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo de vigencia del Convenio. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor del mercado.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en el Texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor (18.000€ IVA excluido en el supuesto de suministro de bienes y equipos, servicios...), el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores previamente a la contratación de los mismos, salvo que por sus especiales características no

ez badago holakorik egin, eskain edo horni dezakeen erakunde nahikorik edo gastua diru-laguntza eskatu aurretik egin bada.

Justifikazioan edota diru-laguntzaren eskarian erantsi behar diren eskaintzen artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan. Ekonomia aldetik merkeena ez den eskaintza aukeratzaren denean, aukeraketa hori berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

SEI.- Pertsona edo erakunde onuradunak diru-laguntzari buruz egin behar duen publizitatea

Entitate onuradunak udalaren finantziarioa jendaurrean azaldu beharko du eta Udalaren logotipoa agertu beharko du sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, foiletoak, informazio-orriak...), oroigarrietan, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetako iragarkietan.

Era berean, diruz lagundutako programaren edo jardueraren publizitatea egiteko elementu moduan erabiliko diren kartelak, testuak eta dokumentuak hizkuntza ofizial bietan, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, idatzita egongo dira. Diruz lagundutako jarduera sustatzeko agerraldi publikoak eta megafoniaz zabalduetako mezuak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, hurrenkera horretan.

exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

SEXTA.- Publicidad de la subvención por parte de la persona o entidad beneficiaria.

La entidad beneficiaria, deberá hacer pública esta financiación municipal incluyendo el logotipo del Ayuntamiento en los materiales impresos que genere (carteles, folletos, hojas informativas...), en las placas conmemorativas, en los medios electrónicos o audiovisuales o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación escrita.

Asimismo, se deberán utilizar ambas lenguas oficiales, euskera y castellano, en los carteles, textos y documentos que se elaboren como elementos de publicidad del programa o actividad subvencionada. De igual modo, las intervenciones públicas de promoción ligadas a la actividad objeto de subvención, así como los mensajes que se comuniquen por megafonía, serán bilingües utilizando el euskera y el castellano en ese orden.

ZAZPI.- Diru-laguntzaren ordainketa

Zenbateko guztia ordainketa bakarrean ordainduko da hitzarmena sinatu ondoren eta ez zaio inolako bermerik exijituko onuradunari.

ZORTZI.- Justifikazioa

Onuradunak diru-laguntzaren zertarakoa bete dela justifikatu beharko du 3 hilabeteko epean, diruz lagundutako jarduera amaitzen denetik hasita. Justifikazioa egiteko, pertsona edo erakunde onuradunak proiektuaren justifikazio-kontua aurkeztu beharko du, gastuen ziurtagiriak erantsita. Honako hauek, hain zuzen:

1. Hitzarmen honetako baldintzak bete direla frogatzen duen **memoria**, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

2. Programa gauzatzetik **sortutako gastuen eta izandako diru-sarreraren balantzea**, Udalak emandako ereduari jarraituta.

3. Programa gauzatzeko epearen barruan egindako **gastuen jatorrizko ziurtagiriak**. Erakundeak originalak itzultzeko eskatuko badu, kopia ere aurkeztu beharko ditu. Mota biko gastuak bereizten dira horretarako:

Programarekin zuzenean lotutako gastuak: oso-osorik justifikatu beharko dira, fakturen eta balio bereko gainerako ziurtagirien bidez.

Justifikatzen den programari buruzkoak bakarrik izango dira dokumentuok eta datu hauek jasoko dituzte:

SÉPTIMA.- Pago de la subvención

El abono de la cantidad total se efectuará en un único pago tras la firma del Convenio, no exigiéndose para ello garantía alguna al beneficiario.

OCTAVA.- Justificación

El beneficiario deberá justificar el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención en el plazo de 3 meses contados desde la finalización de la actividad subvencionada. La justificación se hará mediante la presentación de la Cuenta Justificativa con aportación de justificantes de gastos que incluirá:

1. **Una memoria** de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en el presente Convenio, en la que se indicarán las actividades realizadas y los resultados obtenidos.

2. **El balance de gastos e ingresos** correspondiente a la ejecución del Programa, conforme al modelo facilitado por el Ayuntamiento.

3. **La documentación original justificativa que acredite los gastos** - en el caso que la entidad solicite devolución de los originales deberá presentar además copia de los mismos- efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, distinguiéndose , a estos efectos:

Los costes directamente relacionados con la ejecución del programa, que deberán quedar justificados en su totalidad, mediante facturas y demás documento de valor probatorio equivalente. Estos documentos se circunscribirán únicamente al programa que justifican y deberán incluir, en todo caso, los siguientes datos:

- ✓ Pertsona onuradunaren identifikazioa
- ✓ Gastua zertan egin den. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa gauzatzearekin
- ✓ Legez eska daitezkeen gainerako datuak.

Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsonak egiten badituzte jarduerak, adostutako prestazioaren zenbatekoaren hartze-agiria agertzen duten dokumentuak aurkeztea onar daiteke, jasotzailearen identifikazio-agiriarekin batera (NAN, AIZ edo pasaportea). Zenbatekoa 200 eurotik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen bankuko kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Langileen gastuak egiaztatzeko, nominak eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak aurkeztu behar dira.

Zeharkako kostuak: beren beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, pertsona edo erakunde onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrira; betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa. Kostu horiek justifikatze aldera, zeharkako kostuetan gehienez ere onartuko den ehunekoak diru-laguntza emateko oinarri hartu den aurrekontuan erakundeak adierazi duena izango da, eta benetan

- ✓ La identificación de la persona beneficiaria.
- ✓ La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.
- ✓ Demás datos legalmente exigibles.

Con carácter excepcional, en supuestos de actividades realizadas ocasionalmente por personas que no ostentan la condición de empresarias o profesionales, se podrá admitir la presentación de los documentos en los que figure el recibí del importe de la prestación convenida, junto con copia del documento identificativo (DNI, NIE o pasaporte de la persona) de la persona perceptora. Cuando su importe sea superior a 200€, además, se deberá acompañar el documento acreditativo de la realización del abono en la cuenta bancaria de la persona perceptora.

Los gastos de personal se acreditarán mediante la presentación de las nóminas y cotizaciones a la Seguridad Social.

Los costes indirectos, salvo requerimiento expreso, no se exigirá justificación documental alguna. Estos costes deberán imputarse por la entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo con principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al periodo en que efectivamente se realiza la actividad, sin que, en ningún caso, se pueda imputar una cantidad superior al 10 por ciento de los costes del programa subvencionado. A efectos de justificación, el porcentaje admitido de costes indirectos será el mismo que el declarado por la entidad en el

justifikatu diren zuzeneko gastuei aplikatuko zaio

Diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratuan kontratu txikirako ezarritakoa (18.000 euro, BEZ kanpo, ondasunen eta ekipoen, zerbitzuen eta abarren hornidurarako) baino handiagoa denean eskatu behar diren hiru aurrekontuak, ez bada eskaintzarik merkeena aukeratzeko, memoria batean justifikatu beharko da beren beregi.

BEDERATZI.- Programa aldatzea

Programan edozein aldaketa garrantzitsu eginez gero, aldeaz aurretik Bilboko Udalari eskatu beharko zaio idatziz, eta hark erantzun beharko du baimena beren beregi.

Aldaketa garrantzitsu bat egiteko eskabideak arrazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuko eta kronogramako ondorioak zehaztu beharko dira. Gobernu Batzordeak sail egokiaren ordezkariari eskuordetuko dio aldaketa horiek baimentzea.

Horretarako, hauek joko dira aldaketa garrantzitsuetzat:

- ❖ Helburu orokorretan edo/eta zehaztutako aldaketak egitea.
- ❖ Onartutako aurrekontuetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin izango dute zehaztutako kostuetan eraginik eduki), ez bada programaaren aurrekontu osoa gutxitzen.

presupuesto que sirve de base para la concesión de la subvención, y se aplicará sobre los gastos directos efectivamente justificados

Los tres presupuestos que deben haberse solicitado cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en el Texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor (18.000€ IVA excluido en el supuesto de suministro de bienes y equipos, servicios...), en el supuesto que la elección no recaiga en la propuesta económicamente más ventajosa se deberá justificar tal elección expresamente en una memoria.

NOVENA.- Modificación del programa

Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao, quien deberá expresamente autorizarla.

Las solicitudes de modificación sustancial han de ser motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- ❖ Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- ❖ Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzordeak onartu beharko du.

Diru-laguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa justifikazioa egiten denean onar daiteke, beste batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa, deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

HAMAR.- Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen honek 2016ko abenduaren 31ra arteko indarraldia du eta 2016ko urtarrilaren 1ean hasitako atzeraeraginezko ondorioak.

Alde biak ados daude hemen jasotako guztiarekin eta hori horrela dela agertzeko hitzarmen honen ale bi sinatu dituzte Bilbon 2016ko **maiatzaren 27an**.

DÉCIMA.- Vigencia del Convenio

El presente Convenio tiene un período de vigencia hasta el 31 de diciembre de 2016, teniendo efectos retroactivos desde el día 1 de enero de 2016.

Las partes prestan su conformidad a todo lo aquí recogido, y en prueba de ello firman por duplicado el presente Convenio en Bilbao a **27 de mayo** de 2016.

**EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILEKO
ZINEGOTZI ORDEZKARIA
CONCEJAL DELEGADO DEL ÁREA
DE EUSKERA Y EDUCACION**

Sinatzailea/Firmado:
Koldo Narbaiza Olaskoaga jn.

**BIZKAIKO IKASLEEN GURASO
ELKARTEA
FED. ASOCIACIONES DE
PADRES Y MADRES DE ALUMNOS
DE BIZKAIA**

Sinatzailea/Firmado:
Ana Isabel Puente Martinez and.

ERANSKINA 1

ERANSKINA 2